

## BIZITZAK DAKARREN JAKITURIA

<p><b>1</b> Nik ez daukat eskolarik eta ez daukat lotsarik. Bizitza bera eskola bat da, nun da beste bat hobarik? Aitita batek beste nok jakin, bera beste bizi barik?</p>	<p><b>3</b> Zientzi ta kultura hau da gaurko arduria. Batek zer jakin leike zer diran atso edo aguria? urteak barik, nok izan daike urteen jakituria?</p>
<p><b>2</b> Haundia ez da daukana, ezta asko dakiana. Ume ta gazte, sasoiko ta zahar, danetik bizi izana; bizitza zer dan nik badakit ta hau da nik dakidan dana.</p>	<p><b>4</b> Ekarri daigun kontura gehien zerk deuskun ardura: Hau amaituta, zelan helduko betiko bizilekura. Hau ez dakian jakituririk nik neuk behintzat ez dot gura.</p>